

EBAZPENA, 2017ko urriaren 10ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluarena; haren bidez, Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko Protokoloa (Unibasqeko Aholku Batzordeak 2017ko urriaren 9an onartua) ematen da argitara.

GRADU ETA MASTERREKO UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA DUALAREN AITORTPEN AITORTZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA.....	1
2. XEDEA ETA NORAINOKOA.....	2
3. UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIAL DUALAK EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA.....	3
4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	4

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Unibertsitate-irakaskuntza ofizialen eta haien ondorengo aldaketen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak kanpoko praktikak sartzeko aukera ezartzen du, etorkizuneko graduatuen enplegarritasunarekiko konpromisoa sendotzeko. Era horretan, graduako ikasketak egiten dituzten ikasleen prestakuntza aberastuko da, ikasleei zein prestakuntzaren arduradunei etorkizunean beharrezkoak izango diren kompetentzien inguruko jakintza sakonagoa emango dien ingurune batean. Halaber, graduako titulazio ofizialen kasurako adierazten duenez, kanpoko praktikak programatzen badira, tituluaren kreditu guztien ehuneko 25era iritsiko dira gehienez, eta, ahal bada, ikasketa-planaren bigarren erdialdean eskainiko dira. Horrez gain, Kalitatea Bermatzeko Sistemak kanpoko praktiken eta mugikortasun-programen kalitatea bermatzeko prozedurak txertatzeko beharra ezartzen du.

Ilde horretan, abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutako Unibertsitateko Ikasleen Estatutuaren 8. artikulua graduako ikasleek praktikak (curriculumekoak edo curriculumetik kanpokoak) egiteko duten eskubidea onartzen du. Praktika horiek kanpoko entitateetan eta Unibertsitatearen zentro, egitura edo zerbitzuetan egin ahal izango dira, aurreikusitako modalitatearen arabera eta beren prestakuntza-helburua lortzera (f letra) eta ikasketa-planean aurreikusten diren kanpoko praktiketan (...) tutoretza efektiboa, akademikoa eta profesionala edukitzera (g letra) bideratuta egongo direla bermatuta.

Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailearen 11ko 592/2014 Errege Dekretuak praktiken helburuak, entitate laguntzaileak eta hartzaileak, betekizunak, tutoretzak eta hezkuntza-lankidetzako hitzarmenen edukiak garatzen ditu. Arau horrek, gainera, praktiketako ikasleak administrazio publikoen eremuan eta enpresen eremuan txertatzeko aukera sustatu (guztiei "entitate" deituko diegu, irabazi-asmokoak edo irabazi-asmorik gabekoak, publikoak edo pribatuak), etorkizuneko profesionalen enplegarritasuna

bultzatu, ekintzailletza, sorkuntza eta berrikuntzarako duten ahalmena sustatu, eta jakintzaren gizartean oinarritutako eraldaketa ekonomikoarekiko konpromisoari erantzun behar dio.

Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuak zera proposatzen du, unibertsitate-ikasketa ofizialen ikasketa-planen diseinuan, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan emandako ildo orokorreari jarraikiz, irakasteko metodologieta aldaketa bat bultzatzea. Metodologia berrien ardatza ikasleen ikasketa-prozesua izango da, bizitza osoan luzatuko dena. Hainbat kontu uztartuko dituen ereduak izango da: ikaskuntza teorikoa, praktikak egitea, mintegiak, irakurketa osagarriak eta bestelako ikasketa-bideak. Eredu berri horrek, halaber, aurrez aurreko irakaskuntza nahiz urrutiko irakaskuntza uztartuko ditu.

Indarrean dagoen araudi horretan guztian eta E4 Taldeak (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students' Union (ESU), European University Association (EUA) eta European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE) entitateek) Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Quality Assurance Register of Higher Education (EQAR) entitateekin batera landutako Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea bermatzeko irizpide eta jarraibideetan oinarrituta, Agentziaren Aholku Batzordeak Protokolo hau onartzeko erabakia hartu zuen 2017ko urriaren 9ko bilkuran, Euskadiko Gradu eta Masterreko titulazio ofizialetan prestakuntza duala aitortzeko prozedura eta betekizunak ezartzeko.

2. XEDEA ETA NORAINOKOA

Prestakuntza dualaren aitortpena titulazio osora edo haren ibilbide batera zabaldu ahal izango da. Lehen kasuan, titulua ikasten duten ikasle guztiek jasoko dute prestakuntza duala. Bigarrenetan, berriz, ibilbidea egiten duten ikasleek soilik, ez, ordea, titulazio bera ikasten ari diren baina ibilbidean sartuta ez dauden ikasleek.

Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden Euskal Unibertsitate Sistemako titulu ofizial guztiek lortu ahal izango dute, nahi badute, prestakuntza dualaren aitortpena. Titulazioa berria bada, Unibertsitateak unibertsitate-ikasketa ofizialaren justifikazio-memoria aurkeztuko du, ikasketa ofizialak egiaztatu eta baimentzeko ezarritako prozedurei eta epeei jarraikiz, eta egiaztatzeko eskaeraz gain, prestakuntza duala aitortzeko eskaera (Protokolo honen I. Eranskinean jasotakoa) beteko du.

Dagoeneko ezarrita dauden titulazioen kasuan, Unibasqek garatutako jarraipen-prozeduraren arabera egingo da eskaera, eta, beharrezkoa izanez gero, memorian egin beharreko aldaketak aurkeztuko dira orduan. Hala ere, Unibasqek ezohiko deialdiak egin ahal izango ditu *ad hoc*, dagoeneko ezarrita dauden tituluak prestakuntza dualaren aitortpena eska dezaten. Kasu horietan, dokumentazio bera aurkeztu beharko da, eta, beharrezkoa izanez gero, bidezko aldaketak izapidetuko dira eskaerarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko unibertsitateen RUCTean inskribatutako titulazio ofizialek prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko betekizunak ezartzen ditu Protokolo honek. Unibertsitateen kasuan,

Unibertsitatearen eta Agentziaren artean egingo den eta ebaluazio hori kontuan hartu eta garatuko duen hitzarmen baten esparruan aplikatu ahal izango da Protokolo hau.

3. UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIAL DUALAK EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA

3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea

Titulazioa ezarri berria denean, irakaskuntza ofizialak egiaztatu eta baimentzeko ezarritako izapideei jarraituko zaie. Izapide arrunt horiez gain, prestakuntza dualaren aitortpena eskatzeko I. Eranskina beteko du Unibertsitateak, eta Unibasqi bidaliko dio zuzenean.

Dagoeneko ezarrita dauden eta prestakuntza dualaren aitortpena lortu nahi duten titulazioen kasuan, jarraipen-prozesuan edo Unibasqek horretarako egiten duen ezohiko deialdi batean aurkeztu beharko zaio Unibasqi I. Eranskina. Gerta daiteke titulazioan aldaketaren bat egin behar izatea protokolo honek aitortpenerako eskatzen dituen betekizunak betetzeko. Kasu horretan, Unibasqen “*Unibertsitateko tituluen aldaketa eskatzeko gidaliburuan*” ezarritakoaren arabera jokatu da, eta irakaskuntza ofizialen jarraipena egiteko edo irakaskuntza horiek aldatzeko ezarritako izapideei jarraituko zaie. Izapide arrunt horiez gain, prestakuntza dualaren aitortpena eskatzeko I. Eranskina beteko du Unibertsitateak, eta Unibasqi bidaliko dio zuzenean.

3.2. Unibasqek txostena egitea

Unibasqek txosten bat egingo du titulu bakoitzeko. Horretarako, Protokolo honetan zehaztutako irizpideei jarraituko die.

Ikasketa-planaren ebaluazioa titulua atxikita dagoen adarreko Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeak egingo du. Batzorde hori adituez osatuta egongo da, eta, ondorio hauetarako, profil profesionaleko pertsona bat ere egongo da. Ebaluazio Batzordeen jardunek Unibasqek bere Etika eta Eskubide Kodean eta dokumentu honek biltzen dituen barne-prozedurako arauetan ezarritako argibideei jarraituko diete.

Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeak txosten-proposamen arrazoitu bat egingo du, eta aitortpenaren aldeko edo aurkako iritzia agertuko du bertan. Azken kasu horretan, aldeko txostena lortzeko alegazio-epearen barruan nahitaez aldatu beharreko alderdiak adierazi ahal izango dira. Txosten-proposamen hori Unibertsitatera bidaliko da, 20 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Epea amaitu eta, hala badagokio, alegazioak balioetsi ondoren, Unibasqek behin betiko ebaluazio-txostena egingo du (aldekoa edo aurkakoa), eta unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzari igorriko die. Aurkakoa denean, hobetzeko gomendioak adierazi ahal izango dira. Gomendio horiek titulazioaren egiaztapena egiaztatu, berritu edo haren jarraipena egitean emandako gainerako gomendioak bezala izapidetuko dira.

Txostena 6 hilabeteko epean egingo da gehienez, ebaluazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren sarrera-datatik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera ezetsizat hartuko da.

3.3. Ebaluazio-prozesuaren emaitza

Tituluak edo ibilbideak prestakuntza dualaren aitortzea lortzen badu, Unibertsitateak “Unibertsitatea/Entitatea prestakuntza dual edo ikas-ekinezko” gisa txertatu ahal izango du aitortze hori titulu edo ibilbide dualaren ikasketa-planari jarraitu dion ikaslearen titularen gehigarrian. Halaber, titulu osoa dualtzat hartuta dagoela edota ibilbide dual bat duela jaso ahal izango du tituluari buruzko informazio publikoan eta titulua zabaltzeko jardueretan.

Tituluaren edo ibilbidearen izaera dualaren aitortzea ez da iraungitzen, baina tituluaren egiaztapenaren jarraipena egitean edo egiaztapen hori berritzean, ezarpenean gertatutako gorabeheren eta hobekuntzen berri eman beharko zaio Unibasqi, eta ebaluazio-batzordeek edo bisita-panelek bidezkotzat hartzen duten informazio gehigarria jaso ahal izango du Agentziak. Egiaztapenaren jarraipena egitean edo egiaztapen hori berritzean tituluak edo ibilbideak aitortzea lortzeko beharrezkoak diren betekizunak dagoeneko betetzen ez dituela ikusten bada, Agentziak aitortzea kendu ahal izango du, betiere Titulazioak Ebaluatzen Batzordeak bidezkotzat hartzen badu. Nolanahi ere, Unibertsitateak bidezkotzat hartzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 20 eguneko epean, izaera dualaren aitortzea lortzeko betekizunak dagoeneko betetzen ez direla adierazteko Agentziak igortzen dion jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatzen hasita. Alegazioak aztertu ondoren, aitortzea kentzeari edo ez kentzeari buruzko behin betiko erabakia hartuko du Batzordeak. Aitortzea kenduz gero, ezin izango da aipamena txertatu tituluaren aitortzean, eta ezin izango da erabili “prestakuntza duala edo ikas-ekinezkoa” adierazpena tituluari buruzko informazioan eta tituluaren zabalkunde publikoan.

4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenen ebaluazioa egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Tituluaren deskribapena

Atal honetan, titulu edo ibilbide dualeko ikasleentzat dauden plazen kopurua adierazi behar da, eta Unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiak hartzeko behar adina entitate dituela. Prestakuntzan parte hartzen duten entitateen zerrenda emango da.

Halaber, entitatearen barruan edo entitatearekin lankidetzan emango diren ikasketa-planaren kredituen kopurua adierazi behar da. Aitortzea lortzeko, ikasle batek nahitaez egin behar dituen kredituen ehunekoak guztizkoaren % 25-50 izan behar du graduaren kasuan, eta gutxienez % 40 (edo gutxienez 30 ECTS) masterraren kasuan. Ehuneko horren barruan, Gradu/Master amaierako lana sartu behar da. Salbuespen gisa, egiaztatuta dauden graduko titulazioen kasuan, guztizkoaren % 20 egiaztatuta lortu ahal izango da aitortzea, betiere 3 urteko epean

ezarritako % 25aren lorpena justifikatzen bada.

2. Titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-planaren justifikazioa

Atal honetan, metodologia dualak edo ikas-ekinezkoak tituluko konpetentzia batzuk garatzeko duen interesa eta garrantzia justifikatu behar da.

Era berean, titulu edo ibilbide dualaren diseinuan eta ezarpenean parte hartzen duten entitate edo erakundeen parte-hartzearen maila azalduko da, titulazioaren edo ibilbidearen eguneroko martxan duten ezinbesteko inplikazioa agerian uzteko. Hau da, entitatea edo erakundea ez da bertan jarduera praktikoak egiten dituzten ikasleen hartzaille soila; aitzitik, agente aktiboa da titulazioan eta irakatsi eta ikasteko jardueretan.

Horretarako, Unibertsitatearen eta entitateen ordezkarien arteko batzorde misto bat behar da. Batzorde horrek, zehazki, entitatean edo erakundearen egindako jardueren eta ikasgelan egindakoen koordinazioa eta integrazioa bermatu beharko luke. Gainera, detektatutako gorabeheren azterketa eta ikasleen jarraipena egin beharko da. Egiatzapenaren jarraipena egiten den eta egiatzapena berritzen den bitartean, batzorde horren bileretako aktak eskatu ahal izango dira.

3. Konpetentziak

Atal honetan, titulazioari edo ibilbideari lotuta erakundearen garatzen diren konpetentziak eta ikasgelan garatzen direnak zein diren eta nola garatzen diren azaldu beharko da (konpetentzia orokorrak titulazioaren kasuan, eta konpetentzia espezifikokoak ibilbidearen kasuan). Konpetentzia bat bi eremuetan lantzen bada, eremu bakoitzean konpetentzia horrek duen garapen-maila edo konpetentzia eskuratzeko modua adierazi beharko da. Nolanahi ere, tituluaren diseinuak eta ezarpenak ikasgelako jarduerak eta entitatearen egindakoak koordinatzen eta integratzen dituela agerian uztea da helburua.

4. Ikasleen sarbidea eta onarpena

Ikasleak parte hartzen duten entitate edo erakundeetan nola banatuko diren adierazi beharko da, eta, nolanahi ere, tituluaren edo ibilbidearen matrikulatutako pertsona guztiek ikasketa-planaren aurreikusitako jarduerak entitate edo erakunde batean egingo dituztela bermatu beharko da. Era berean, informazio horrek publikoa izan beharko du titulazioaren webgunean.

Halaber, ikaslearen eta prestakuntza-jarduera egingo duen entitate edo erakundearen artean nolako lotura ezartzen den adierazi behar da. Aitorpena lortzeko, beharrezkoa da lotura hori juridikoa izatea eta ikasleak ordainsari bat eta entitateko gainerako langileenaren pareko aseguru bat jasotzea (langabeziaren prestazioari dagokionez izan ezik, hori ez baita beharrezkoa).

Oro har, ezin izango dira aitortu entitatean aldez aurretik egindako lan-jarduerengatik edo praktikengatik eman beharreko kredituak, batzorde mistoak aitortzen dituen izan ezik eta dagokion ikasketa-planean ezarritako mugekin. Horretarako, denborari zein eskakizun-mailari dagokionez baliozkotutakoen baliokideak diren jarduerak egin direla egiaztatu beharko da. Egiaztapenaren jarraipena egitean eta egiaztapena berritzean, titulu edo ibilbide dualean izapidetutako kredituen aitortpenari buruzko espedienteak eskatu ahal izango dira.

5. Irakaskuntzen plangintza

Titulu edo ibilbidearen programazioa aurkeztu beharko da, honako hauek adierazita: ikasgelan egindako jarduerak eta entitatean egindakoak txandakatzeko dituzten irakasgaiak, jakintzagaiak edo moduluak, haien iraupena eta ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak. Irakasgai, jakintzagai edo moduluetan, zehazki, kronograma azaldu beharko da, ikasgelan egin beharreko jarduerak eta entitatean egin beharrekoak txandakatzeko denborak adierazita. Adibidez, lehen asteetan jarduerak ikasgelan soilik egiten diren eta entitateko jarduerak geroago egiten diren, aste batean ordu jakin batzuk ikasgelan eta beste batzuk entitatean egiten diren eta abar.

Irakasgai, jakintzagai edo modulu dual edo ikas-ekinezkoen ebaluazioan, irakaskuntza ikasgelan tutorizatzen duen pertsonak eta entitatean tutorizatzen duenak parte hartu beharko dute. Programazioak, nolahi ere, ezarritako ikaskuntza-emaitzak eskuratzeko aukera emango du. Etengabeko eta baterako ebaluazioaren garrantzia dela eta, entitate/erakudearen eta unibertsitatearen arteko baterako tutorizazio intentsibo baten ebidentziak aurkeztea gomendatzen da. Adibidez, ikasleen dokumentu-zorro bat.

Aldez aurretik egiaztatutako titulazioetarako ibilbide dualen kasuan, argitu beharra dago ibilbide bat egiten dutenek konpetentzia espezifiko desberdin bat edo batzuk eskuratzeko dituzten, eta, hala badagokio, memoria aldatzea eskatuko da.

Entitatearen barruan edo entitatearekin lankidetzan ematen diren kredituak irakasgai, jakintzagai edo modulu zehatz edo espezifiko batzuetan txertatuta egon beharko dute (konpetentzia batzuk ikasgelan eta beste batzuk entitatean eskuratzen direnetan, hain zuzen ere), eta bien ebaluazioa elkarrekin eta koordinatuta egingo dute arduradun akademikoek eta entitateko arduradunek.

Ikasleek, aldez aurretik, entitateko prestakuntza segurtasun eta eraginkortasunez garatuko dela bermatzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso beharko dute.

6. Langile akademikoak

Prestakuntza dualean parte hartzen duten langile akademikoen profila eta eredu horretan oinarrituta jasotako prestakuntza adierazi beharko dira. Halaber, entitateko tutorearen profila eta prestakuntza dualaren eredu oinarrituta jasotako prestakuntza adieraziko dira.

Entitateko tutoreak eta irakasleek dituzten betebeharrak adierazi beharko dira, eta entitatearekiko hitzarmenean edota prestakuntza dualean irakasle gisa parte hartzen dutenek sinatutako eranskin batean zehaztu.

7. Baliabide materialak eta zerbitzuak

Prestakuntza dualean parte hartzen duten entitateen zerrenda erantsiko da, eta ikasketa-planak entitateko jardueretarako zehazten dituen kompetentziak garatzeko baldintza nahikoak egiaztatuta dituztela adieraziko da. Zehazki, entitateen xede soziala, instalazioak eta langileen azpiegitura kompetentzia horiek eskuratzeko beharrezkoa den garapen-mailarako egokiak direla adierazi beharko da.

Entitateekin sinatutako hitzarmenak edo, hala badagokio, haiek guztiek bereiz edota beren elkarte edo kluster baten bitartez izenpetu duten eredia txertatu beharko dira. Hitzarmenean, entitateetako tutoreek jasoko duten prestakuntza mota zehaztuko da.

8. Aurreikusitako emaitzak

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik prestakuntza dual baterako.

9. Kalitatea bermatzeko sistema.

Titulazio dualaren diseinu eta plangintzari, ezarpenaren eta betetzearen jarraipenari (gogobetetzearen neurketaren eta premia eta espektatiben identifikazioaren bidez) eta aurreko emaitzen araberako hobekuntzari lotutako prozedurak aurkeztuko dira.

10. Eskola-egutegia.

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik prestakuntza dual baterako.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 10a

Eva Ferreira García
Unibasqeko zuzendaria